

## BESTELAKO XEDAPENAK

### ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

## 2112

*334/2013 DEKRETUA, apirilaren 22koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluko kideak kargutik kentzeko eta beste batzuk izendatzeko dena.*

Urriaren 13ko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 3/2011 Legearen bidez, izaera administrati-boko erakunde autonomo gisa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua sortu zen; eta bere 7. artikulua xedatzen duenez, Administrazio Kontseilua aipatu erakundearen gobernu-organo goren da.

Maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaz Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua estatutuak onartu ziren, eta bere 6.2 artikuluan zehazten denez, Administrazio Kontseilua honako hauek osatuko dute:

- a) Lehendakaria, enpleguaren arloan eskumena duen saileko titularra.
- b) Lehendakariordea, enpleguaren arloan eskumena duen sailburuordetzako titularra.
- c) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia.
- d) Eusko Jaurlaritzak izendatu, eta, hala badagokio, kargutik kenduko dituen bi bokal, enpleguaren arloan eskumena duen sailak proposatuta.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari handiena duten sindikatuen ordezkari bost bokal; zeintzuk aipatu sindikatuak aukeratuko dituzten eta Jaurlaritzak izendatu dekretu bidez.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari handiena duten enpresa-antolakundeen ordezkari bost bokal; zeintzuk aipatu antolakundeak aukeratuko dituzten eta Jaurlaritzak izendatuko dekretu bidez.

Azaroaren 29ko 253/2011 Dekretuaren bidez (2011-12-12ko EHAA, 233. zk.), Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluko kideak izendatu ziren, betiere hura arautzen duen legean agindutakoarekin bat etorriaz.

Dekretu horretan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkari izendatutako lau bokalak beren kargu publikoetatik kendu dituzte, kargu horietan jarduteko izendatu baitzituzten Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluko kide. Hori dela eta, kontseilu horren osaeraren zati bat berri eta beste bokal batzuk izendatzen dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkari izango direnak.

Horrenbestez, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko apirilaren 22an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluko kide hauek, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkariak zirenak, orain arte betetzen zituzten karguetatik kentzea:

José Felipe Yarritu Díaz eta María Jose Madariaga Rola jaun-andreak bokal titularren karguetatik, eta Gloria Múgica Conde eta José Carlos Crespo Velasco jaun-andreak ordezkari bokalen karguetatik.

2013ko maiatzaren 3a, ostirala

2. artikulua.– Jaun-andre hauek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluko kide hauek izendatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkari-lanak egin ditzaten:

María Ubarrechena Cid andrea, Gizarte Ekonomiaren eta Enpresaren Erantzukizun Sozialaren zuzendaria dena, eta Jorge Arévalo Turrillas jauna, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordea dena, bokal titularrak izango dira; eta Xabier Iñigo Ochandiano Martínez jauna, Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako zuzendaria dena, eta Ramón María Martínez de Murguía Urreta, Lanbide Heziketako zuzendaria dena, ordezeko bokalak izango dira.

3. artikulua.– Dekretu honek onartzen den egunetik izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko apirilaren 22an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,  
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.